

## **2006-09-27ko OHIZ KANPOKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta seigarren urteko irailaren hogeita zazpian, arratsaldeko 20:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohiz kanpoko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea –Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Agustin Zubeldia Iraola jauna, M. Jesus Otaño Zumeta andrea, Eugenio Loidi Garmendia jauna eta José Luis Olano Zubeldia jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute Aitor Lasa Olalde jauna, eta Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak.

Ez dira etorri eta ez dute adierazi ezin etorria: inork ere ez.

Udaleko idazkariak –Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jauna– egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA**

#### **DEIALDIAREN PRESAZKO IZAERA BERRONESTEA.**

Udalbatzak erabaki du aho batez deialdiaren presazko izaera onartzea, gorporazioko partaideen zilegizko gehiengo osoa osatzen dutenen aldeko botoarekin.

### **BIGARREN GAIA**

#### **AURREKO AKTAK ONARTZEA (06-07-04; 2006-07-27).**

2006ko uztailaren 4ko ohiko eta 2006ko uztailaren 27ko ezohiko saioen akten zirriborroak ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hauek onartzea.

### **HIRUGARREN GAIA**

#### **ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

-2006-07-05-eko 89/06 Dekretua: 2 hilabeteko epean Laskibar Bailara 2an elektrizitate montaiak jarduera legezatzeko errekerimendua.

-2006-07-05-eko 90/06 Dekretua: Igor Obesori baimena ematea, Zillar kaleko 6 beheko lokala egokitzeko.

-2006-07-06-ko 91/06 Dekretua: Aitor Lasa zinegoarengan delegatzea udalaren iordezkaritza Negoziazio Mahaian.

-2006-07-06-ko 92/06 Dekretua: peoiaren lan-kontraturako aukeratze prezesian parte hartzeari uko egitea.

-2006-07-06-ko 93/06 Dekretua: Iker Ugalde peoi lanetarako kontratatze baimena ematea.

-2006-07-07-ko 94/06 Dekretua: 26.729,78€ko kopurua duten ekaineko fakturak onartzea

-2006-07-11-ko 95/06 Dekretua: Ignacio Arregik 116/06 zenbakidun administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren espediente bidaltzea dagokion jurisdikzio-organoari.

-2006-07-12-ko 96/06 Dekretua: Oria Bugati S.L.ri eraisteko baimena ematea.

-2006-07-14-ko 97/06 Dekretua: Lurra S.L.ri eraisteko baimena ematea.

-2006-07-27-ko 98/06 Dekretua: baske epaitegirako diru-laguntza eskabidea.

- 2006-07-28-ko 99/06 Dekretua: Naturgas Energia enpresari 539,95 euro likidatzea 2006ko 2. hiruhilekoan erabilpen pribatiboa eta aprobetxemendu berezia egiteagatikako tasa.
- 2006-08-07-ko 101/06 Dekretua: Jesús M<sup>a</sup> Otxotekori obra baimena ematea etxeko lorategian atea eraikitzeko.
- 2006-08-07-ko 102/06 Dekretua: José Amantegui obra baimena ematea etxeko sukaldea konpontzeko.
- 2006-08-09-ko 103/06 Dekretua: 35.790,96€ko kopurua duten uztaileko fakturak onartzea
- 2006-08-11-ko 104/06 Dekretua: Javier Hernandezi termiten kontrako tratamendua egiteko baimena ematea.
- 2006-08-23-ko 105/06 Dekretua: Aluminios Arfel S.L. enpresari esleitzea udal eskoletako eraikineko leihoak hornitzeko.
- 2006-08-23-ko 106/06 Dekretua: Dionisio Caballero jaunari 554€ ordaintzea SS-1337-W ibilgailuan izandako kelteengatik.
- 2006-08-23-ko 107/06 Dekretua: Salto Systems enpresari esleitzea 6.244,54€ko prezioan udaletxeko sarbideak kontrolatzeko sistemaren hornikuntza eta instalazioa..
- 2006-08-24-ko 108/06 Dekretua: Labein enpresa kontratazea aholkularitza eta laguntza pilotalekuko ezker-hormaren estaldura konpontzeko.
- 2006-08-28-ko 109/06 Dekretua: France Zirkoa udalerrri honetan jartzeko baimena ematea.
- 2006-08-24-ko 110/06 Dekretua: 2005eko udal aurrekontuaren likidazioa onartzea.
- 2006-09-04-ko 111/06 Dekretua: 7.076,05€ ordaintzea Anoetako Herri Ikastolari Irurako ikasleak Anoetako ikastolara garraiatzeko.
- 2006-09-04-ko 112/06 Dekretua: 2.575€ko kopurua duen hitzarmena gauzatzea Sare-Berri S.L.L.rekin informatikako sistemen funtzionamendua kontrolatzeko.
- 2006-09-04-ko 113/06 Dekretua: M<sup>a</sup> Jose Aizpuru kontratazea garbitzaile lanposturako, irailaren 1etik 30era.
- 2006-09-04-ko 114/06 Dekretua: onartzea exekuzio proiektua, 16 zonaldean etxebizitza bat eta garajea egiteko.
- 2006-09-07-ko 115/06 Dekretua: 110-E ri etxez etxeko laguntza berezia ematea.
- 2006-09-07-ko 118/06 Dekretua: euskara ikastera joan diren ikasleei diru-laguntza ematea.
- 2006-09-20-ko 120/06 Dekretua: Alicia Yolanda Lema ri baimena ematea herriko jaietan artisautza saltzeko postu bat jartzeko.
- 2006-09-20-ko 121/06 Dekretua: Juan Sanchez aurkeztutako eskaerari baimenik ez ematea.
- 2006-09-20-ko 122/06 Dekretua: Manuel Antonio Dos Santos baimena ematea herriko jaietan pitxoi tiraketa postu bat jartzeko.
- 2006-09-20-ko 123/06 Dekretua: Messaoud Stitou jaunari baimena ematea herriko jaietan jostailu postu bat jartzeko.
- 2006-09-20-ko 124/06 Dekretua: Conchi Perezi baimena ematea herriko jaietan txurroen postu bat jartzeko.

#### **LAUGARREN GAIA**

**BERRESTEA, BADAGOKIO, ALKATETZAREN 117 ZENBAKIA  
DUEN DEKRETUA, 06-09-13KOA, IRISGARRITASUN PLANERAKO  
DIRULAGUNTZA ESKAERARI BURUZKOA.-** Udalbatzak aho batez erabaki

du, alkatetzak emandako 117 zka.dun 2006-09-13ko dekretua berrestea:

2006ko uztailaren 19ko Aginduaren bidez (Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuarena) deitzen eta arautzen dira irisgarritasun-planak eta hobekuntza-obrak egiteko udalei eta beste erakunde batzuei eman beharreko diru-laguntzak.

Horregatik, indarrean dagoen legediaren arabera dagozkidan eskumenak kontuan hartuta.

#### ERABAKI DUT:

Lehenik.- Dagokion diru-laguntza eskatzea, aipatutako Aginduaren arabera, Irurako udalerrri honetako hiri-inguruneak, eremu publikoak, eraikinak, garraioak eta informazio-sistemak gai honi dagokion indarreko legedira pixkanaka egokituz joateko irisgarritasun-plana prestatzeko.

Bigarrenik.- Udalbatzari jakinaraztea Dekretu honen berri, egiten den hurrengo saioan, hark berrets dezan.

Bide administratiboari dagokionez, behin betikoa da erabaki hori. Horren aurka, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez daiteke, Donostiako Administrazio-arekiko Auzietako epaitegian.

Hori dela eta, udalbatzak berronestea erabaki du aho batez.

#### BOSGARREN GAIA

**BERRESTEA, BADAGOKIO, ALKATETZAREN DEKRETUA, IRISGARRITASUN PLANA IDAZTEKO KONPROMISOA HARTUZ EMANDAKOA.-** Udalbatzak aho batez erabaki du, 119 zka.dun 2006-09-13ko alkatetzak emandako dekretua berrestea:

“Irurako Udalak dagokion diru-laguntza eskatu nahi dio Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, Irurako udalerriko irisgarritasun-plana egiteko, 2006ko uztailaren 19ko Aginduak xedatutakoaren arabera.

Beraz, indarrean dagoen legeriak ezartzen dizkidan eskumenen arabera,

#### ERABAKI DUT:

Lehena.- Irurako Udalak konpromisoa hartzea irisgarritasun-plan bat egiteko. Plan honen helburua da herrian jada dauden inguruneak, toki publikoak, eraikinak, garraioak eta informazio-sistemak egokitzea indarrean dagoen legeriak ezartzen duenari.

Bigarrena.- Erabaki hau Udalbatzari jakinaraztea, erabakia berronesteko.

Akordio hau behin betikoa da bide administratiboan. Beraren aurka administrazioarekiko auzietako errekurtsioa jarri ahal izango da, Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegian.”

Hori dela eta, udalbatzak berronestea erabaki du aho batez.

#### SEIGARREN GAIA

**BERRESTEA, BADAGOKIO, ALKATETZAREN 116 ZENBAKIA DUEN DEKRETUA, 06-09-13KOA, ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN JENDAURREKO INFORMAZIOERAKO EPEA LUZATUZ EMANDAKOA.-** Udalbatzak aho batez erabaki du, alkatetzak emandako 116 zka.dun 2006-09-13ko dekretua berrestea:

“2006ko uztailaren 4ko Udalbatzak hasierako onespina eman zion Irurako Udalaren Hiri Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenari, eta informazio publikoko epea zabaldu du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen zegokion iragarkia, uztailaren 21ean eta irailaren 21ean amaituko da informazio-

epea.

Gaiaren garrantzia ikusirik, komeni da handitzea informazio-epea, baita alegazioak aurkeztekoa ere.

Horregatik, indarrean dagoen legediaren arabera dagozkidan eskumenak kontuan hartuta,

### **ERABAKI DUT:**

Lehenik.- 2006ko urriaren 11ra arte (egun hori ere barne dela) handitzea Irurako Udalaren Hiri Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspen dokumentuaren informazio-publikoko epea eta hari alegazioak aurkeztekoa.

Bigarrenik.- Udalbatzari jakinaraztea Dekretu honen berri, egiten den hurrengo saioan, hark berrets dezan.

Bide administratiboari dagokionez, behin betikoa da erabaki hori. Horren aurka, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez daiteke, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegian.”

Hori dela eta, udalbatzak berronestea erabaki du aho batez.

### **ZAZPIGARREN GAIA**

#### **ERABAKITZEA, BADAGOKIO, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LEHIAKETAKO ADJUDIKAZIOA.**

Etxez etxeoko laguntza zerbitzua kontratatzeoko lehiaketa dela eta, 2006ko irailaren 27ko akta jakinarazi dute, Kontratazio Mahaiarena, eta honela dio:

1. puntua.- Proposamenak onartzea.

Idazkari-kontuhartzaileak aurkeztutako proposamenen berri eman du. Hauexek dira:

-Arreta Zerbitzuak S.L.

-Goxara S.L.

-Zu eta Biok S.Coop.

Era berean, idazkari-kontuhartzaileak jakinarazi du aurkeztu dituzten eskaintzak zuzenak direla zuzenbidearen eta administrazioaren ikuspuntutik eta, bere ustez, kaudimen ekonomiko eta teknikoko baldintzak betetzen dituztela; beraz, lehiaketan parte hartzeko onartu behar direla.

Hori dela eta, Kontratazio Mahaiak aho batez erabaki du aurkeztu diren hiru proposamenak onartzea.

2. puntua.- Adjudikazio proposamena.

Udaleko teknikariek (gizarte langilea eta idazkari-kontuhartzailea) aurkeztutako proposamenak baloratu dituzte baldintzen zerrendako 13. artikuluan adierazitako irizpideen arabera. Hona hemen balorazio horren emaitza:

Lizitattaile	Puntuak
-Arreta Zerbitzuak S.L.	73,48
-Zu eta Biok S-Coop.	70,04
-Goxara S.L.	62,26

Ezbaiaren ondoren, kontratazio mahaiak erabaki du aho batez, udalaren esleipen- proposamenak aurkezteko:

Esleipena Arreta Zerbitzuak S.L.-ren alde egitea, aurkeztuako eskaintzaren arabera eta Baldintzen Zerrendaren arabera, baina ondorengo baldintzekin:

a) Esleipendun berriak kontratatu beharko ditu iadanik kontratatuak dauden eta gaur egun zerbitzu horiek eskaintzen dituen enpresarentzat lan egiten duten langileak, gaur egun dituzten lan-baldintza guztiak errespetatuz. Era berean, Iruran zerbitzua eskaintzeko kontratatu beharreko langile berriak lehendik dauden baldintza berberak izan beharko dituzte lan-zerrendan desberdintasunak egon ez daitezen.

b)Udalarekiko harremanetarako enpresaren ordezkariak euskeraz jarduteko gaitasuna izan beharko du, bai ahoz zein idatziz.

Hori dela eta, udalbatzak, ondorengo erabaki du aho batez:

Lehena.- Irurako Udaleko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua emateko kontratua Arreta Zerbitzuak S.L.ri adjudikatzea, aurkeztutako eskaintzaren arabera, kontratazio mahaiak adierazitako baldintzen arabera eta Baldintza Ekonomiko-administratiboen eta Teknikoen Zerrendaren arabera, jakinik, baldintza horiek, udalaren osoko bilkurak onartu zituela 2006ko ekainaren 6ko batzarraldian.

Bigarrena.- Honen jakinarazpena jasotako egunetik zenbatzen hasi eta 10 egun eraginkorreko epean, 3000€uroko behin betiko bermea ipini beharko du gorporazioko kutxan indarrean dagoen legerian adierazitako moduetako edozeinetan.

Hirugarrena.- Behin behineko fidantzak itzultzea gaintzeko enkantatzaileei.

Laugarrena.- Marimi Ugalde Zabala alkate andrea baimentzea Udalaren izenean eta hau ordezkatzuz kontratu administratiboa izenpetzeko eta helburu horretarako beharrezkoak diren gaintzeko kudeaketetarako.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka Administrazioarekiko auzi-elegitea ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietarako epaitegietan.

## **ZORTZIGARREN GAIA**

### **HASIERAKO IZAERAREKIN ONARTZEA, BADAGOKIO, DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA.**

Udalbatzari aurkeztu zaio “Irurako Udalak emandako dirulaguntzen kontzesioa eta kudeaketa arautzen duen Ordenantza Orokorra”, idatzia izan dena indarrean dagoen legerian erabakitakora egokitze arren.

Azterturik idazkari-kontuhartzailearen txostena.

Hori dela eta, udalbatzak ondorengo erabaki du aho batez:

Lehenengoa.- Onartzea, hasierako izaerarekin, Irurako Udalak emandako dirulaguntzen kontzesioa eta kudeaketa arautzen duen Ordenantza Orokorra

Bigarrena.- Expedientea jendaurrera agertzea, 30 egun eraginkorrez, interesatuek alegazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzaten.

Hirugarrena.- Alegaziorik aurkezten bada, udalbatzari dagokio erantzuna ematea.

Ez bada hala, akordioa behin betiko onartutzat joko da eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, Tokiko Erregimenaren Oinaren Legea den apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan erabakitakoaren arabera.

**BEDERATZIGARREN GAIA**  
**HASIERAKO IZAERAREKIN ONARTZEA, BADAGOKIO,**  
**ETXEKO ABEREI BURUZKO ORDENANTZA.**

Udalbatzari aurkeztu zaio “Animaliak eduki eta babesteko Ordenantza Arautzailea”, berriro idatzia izan dena, aurretik hau onartu zenetik legea hainbat alditan aldatu denez, aldaketa horietara egokitze arren.

Aztertuta idazkari-kontuhartzailearen txostena.

Hori dela eta, udalbatzak ondorengoa erabaki du aho batez:

Lehenengoa.- Onartzea, hasierako izaerarekin, Animaliak eduki eta babesteko Ordenantza Arautzailea.

Bigarrena.- Expedientea jendaurrera agertzea, 30 egun eraginkorrez, interesatuek alegazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzaten.

Hirugarrena.- Alegaziorik aurkezten bada, udalbatzari dagokio erantzuna ematea.

Ez bada hala, akordioa behin betiko onartutzat joko da eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, Tokiko Erregimenaren Oinaren Legea den apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan erabakitakoaren arabera.

**HAMARGARREN GAIA**  
**ONARTZEA, BADAGOKIO, SEGREGATZEA IRURAKO 1**  
**SEKTOREKO B LURSAILETIK, 3.273,90 M<sup>2</sup>KO PARTZELA.**

Alkatetzak ondorengo akordio-proposamena aurkeztu du:

“Udal hau Irurako Arau Subsidiarioetako 1 Sektoreren borondatzeko birpartzelazioaren ondorioz sortutako B izeneko ondorengo partzelaren jabea da.

“6.666,75m<sup>2</sup> ko azalera du eta mugatzen du ipar eta ekialdetik sortutako A izeneko partzelarekin eta Irurako Udalaren domeinu publikoko lurrekin; hego eta mendebaldetik Arriarán Ayestaránen jabegoko lurrekin.

“Erregistroko inskripzioa 1983Liburukia, 31 Liburua, 108 Folioa, Tolosako Jabego-Erregistroko 1667 Finka.

Ondorengo partzela segregatu nahi da finka independente gisara inskribatzeko helbururarekin:

“B-1 letrareki adierazitakofinka, Irurako Arau Subsidiarioetako 1 Sektorera.

3.273,90m<sup>2</sup>ko azalera du.

Mugatzen du ipar eta ekialdetik A letra duen sortutako partzelarekin eta Irurako udalaren domeinu publikoko lurrekin. Hego eta mendebaldetik B partzelaren gainerakoarekin.

Gehienezko aprobetxamendua: 1.476,94 m<sup>2</sup>.

Partzela okupazioa: 743,48 m<sup>2</sup>.

Eraikin-profila : SS+PB+1PA.

**HIRIGINTZA-ARAUAK:**

Partzela honen titularitatearen eskubide eta betebeharrak gauzatuko dira Irurako Arau Subsidiarioetako1-Sektorerako Ordenantzetan ipinitako mugen barruan ordenantzak behin betirako onartutakoan.

Plan Partzialean ezarritakoaren arabera partzela honen erabilera komunitatearentzako ekipemendua, eskolakoa, gizarte arlokoa edo antzekoa izango da.

Hiriztatze-mugak: gainentzeko partzelen jarduketa-unitatearen exekuziotik eratorritakoak.Esleipena: ehuneko ehuna Irurako Udalari.

Kargak: gasturik gabe.

Bide-zorrak: ez du.

Hiriztatze-kargak: ez du.

Gainera jatorrizko finkaren gainerakoaren ezaugarriak adierazten dira.

B izkiarekin adierazitako jatorrizko finka:

Azalera: 3.392.85 m<sup>2</sup>.

Mugakideak: Ipar eta Ekialdea, segregatutako partzela, B-1 izkia duena eta hego eta mendebaldetik, J.R. Arriarán Ayestaránen jabegoarekin.

Azalera eraikigarria :523,06 m<sup>2</sup>.

Gainentzeko baldintzak: jatorrizko finkaren berdinak.

Hori dela eta ondorengo erabakia hartzea proposatu da:

1.- Baimentzea B-1 hizkia duen partzela segregatzea b hizkia duen jatorrizko finkatik, finka independentea bilakatzeko.

2.- Marimi Ugalde Zabala alkate andrea baimentzen da, dagokion eskritura publikoa notario aurrean izenpetzeko eta ondoren Jabetza Erregistroan inskribatzeko eta helburu horretarako beharrezkoak diren gainentzeko kudeaketetarako.

Aztertuta idazkari-kontuhartzailearen txostena.

Hori dela eta, gorporazioak, onartzea erabaki du aho batez.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka Administrazioarekiko auzi-elegitea ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietarako epaitegietan.

#### **HAMAHIKAGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, BADAGOKIO, HITZARMENA IZENPETZEA IRURAKO PARROKIAREKIN, ELIZA BIRGAITZEKO LANETARAKO DIRULAGUNTZA EMATEKO.**

Udal honen aurrekontuan Kredituen 1zka.-dun Modifikazioaren espedientean izendun izaera duen kreditu bat gehitu da, 60.000€uroko dirulaguntza emateko Irurako Parrokiari, elizaren eraikina birgaitzeko obrari aurre egiteko. Horren aurrean eta indarrean dagoen dirulaguntzen legerian erabakitakoaren arabera, dagokion hitzarmena izenpetzea proposatzen da.

Hori dela eta, gorporazioak ondorengo erabaki du aho batez:

Lehen.- Onartzea, Irurako Parrokiarekin aipatutako helbururako izenpetu beharreko hitzarmena.

Bigarrena.- Marimi Ugalde Zabala alkate andrea baimentzea udalaren izenean eta hau ordezkatzuz hitzarmen hori izenpetzeko.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka Administrazioarekiko auzi-elegitea ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietarako epaitegietan.

#### **HAMABIGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, BADAGOKIO, HITZARMENA IZENPETZEA ANOETAKO IKASTOLAREKIN, ESKOLA-GARRIO ZERBITZURAKO LANKIDETZARAKO.**

Aurkeztu da Anoetako Herri Ikastolarekin izenpetu beharreko hitzarmenaren proposamena, helburutzat duena Irurako ikasleak 2006-2007 ikasturtean aipatu eskolara eramateko garraioaren finantziarioari aurre egitea.

Horren aurrean, gorporazioak erabaki du aho batez, ondorengo:

Lehena.- Proposatutako hitzarmena onartzea.

Primero.-Aprobar el Convenio propuesto.

Bigarrena.- Marimi Ugalde Zabala alkate andrea baimentzea udalaren izenean eta hau ordezkatzuz hitzarmen hori izenpetzeko.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka Administrazioarekiko auzi-elegitea ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietarako epaitegietan.

### **HAMAHIRUGARREN GAIA BAKE-EPAILE TITULARRAREN ETA ORDEZKOAREN HAUTAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Kontutan harturik, gaur egungo Irurako Pake Epaitegiko Lehen Epailea eta ordezkoa izendatuak izan zirenetik 4 urte igarotzeaz daudela, kargu berriak izendatzeari ekitea dagokio.

Kontutan harturik, interesik zutenek eskaerak aurkezteko dagokion deialdia zabaldu zela Alkatetazaren Bandoaren bidez eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2006ko uztailaren 7an iragarkia argitaratu ondoren, instantziak aurkezteko gehieneko epea uztailaren 14<sup>a</sup> arte egon zela zabalik.

Kontutan harturik, eskaera hauek aurkeztu direla:

- Izaskun Luluaga Zubelzu And.-rena
- Miren Aranzazu Mugika Letamendia And.-rena

Kontutan harturik, proposatutako pertsonak, betetzen dituztela aipatu karguetarako izendatuak izateko adierazitako baldintzak.

Ikusirik 1985eko uztailaren 1eko Botere Judizialeko lege organikoko 101 art.-an eta hurrengoetan eta bere 1995eko ekainaren 7ko Arautegian adierazten dena.

Ikusirik Udal honetako Idazkari-Artekariak, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileko 54 art.-an erabakitakoaren arabera igorritako txostena.

Horren aurrean, Udalbatzak bertan daudenen ahobatez, zeinak, aipatu Lege Organikoko 101 art.-an erabakitakoaren arabera, Udalbatzak partaideen zilegizko gehiengo osoaren aldeko botua ordezkatzan duten, ondorengo erabakitzen du:

Lehenik.- Irurako Bake Epaitegiko Lehenengo Bake Epailetarako, N.A.N.-ren zka. 72.436.985 duen eta Irurako Mikel Donearen Plazako 9- 3 ezkerreko helbidea duen Izaskun Luluaga Zubelzu And. izendapena proposatzea.

-Irurako Pake Epaitegiko Ordezko Bake Epailetarako, N.A.N.-ren zka. 35.778.617-R duen eta Irurako Etxezarreta Kalea, 9-2 C bizi den Miren Aranzazu Mugika Letamendia and.-aren izendapena proposatzea.

Bigarrenik.- Honoko jakinarazpen honen berri izan ondoreneko 15 egun naturaletako gehieneko epean, interesdunek, karguak onartzen dituztela eta indarrean dagoen legedian adierazten diren kargu hauen ihardueretarako ezintasun edo inkompatibilitate kasuetako bakar bat ere ez dutela aldarrikatzen dutela sinatu beharko dute.

Hirugarrenik.- Akordio honen jakinarazpena eta Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Lehendakartzaren dagokion dokumentazioa tramitatzea, bere izendapenerako eta kargu hartzeari ekiteko.

### **HAMALAU GARREN GAIA UDALEKO FUNTZIONARIOEN ETA LANGILEEN LAN-KONDIZIOAK**

## **ARAUTZEN DITUEN AKORDIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Aurkeztu da Irurako Udalaren Negoziaziorako Mahai Orokorraren Akta, langile funtzionarioentzako zein lan itunpeko langileentzako dena eta udal ordezkariak eta ELA eta CCOO sindikatuen artean izenpetutakoa, non erabaki da onartzea EUDEL-Sindikatuaren arteko akordio orokorra erantsiz udal honek aurretik lortutako hobekuntzak.

Idazkari-kontuhartzailearen txostena aztertuta.

Horren aurrean, gorporazioak erabaki du aho batez, ondorengoa:

Lehen.- Onartzea Irurako Udal honetako 2005-2007 eperako lan-baldintzak arautuko dituzten agiriak, bai langile funtzionarioena, nola lan-itunpeko langileena, ondorengo agiriz osatua dago:

-EAEko herri-administrazioetako lan-harremanen protokoloa, EUDEL eta ELA, CCOO eta UGT sindikatuen artean izenpetua 2006ko martxoaren 9an.

-Udaleko lan-itunpeko langileen lan-baldintzak arautuko dituen lan-hitzarmena, 2006ko martxoaren 9an adostu zutena EUDEL eta ELA, CCOO eta UGT sindikatuek.

- Udal honek aurretik lortuak zituen hobekuntzen eraskina.

Bigarrena.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea dagokion eran eta indarrean dagoen legeriak agindutako gaintzeko izapidetzak burutzea.

Akordio hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzietarako elegitea jarri daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietarako epaitegietan.

## **HAMABOSGARREN GAIA**

### **ONARTZEA, BADAGOKIO EUSKAL FONDOAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.**

Gorporazioak erabaki du aho batez, Euskal Fondoari 2400 €uroko dirulaguntza ematea Granma eta Holguinen gizarte eta osasun zerbitzuetako sarearen proiektuak finantziatzeko.

Akordio hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzietarako elegitea jarri daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietarako epaitegietan.

## **HAMASEIGARREN GAIA**

### **IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA “A” TALDEAN SARTZEA, ONARTZEA.**

Aurkeztu da idazkari-kontuhartzailearen ondorengo eskaera:

“Gainditu duela autaketa prozedura, deitutakoa ekainaren 28ko Administrazio Publikoetako Ministeritzaren aginduz , APU/2141/2005, habilitazio nazionalako izaera duten Herri-Administrazioetako Funtzionarioen Eskalako idazkaritza-kontuhartzailatza azpieskalako funtzionarioak, Funtzio Publikoaren Erreformatarako neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legeko 25 artikuluan erabakitakoetatik A taldean.

Hori dela eta, gorporazioak ondorengoa erabaki du aho batez:

Onartzea Miguel Antonio Arritzabalaga Brusin idazkari-kontuhartzailea A Taldean sartzea, honek ekarriko dizkion ondorioetarako (Lan-postuen Balorazioa, Gizarte Segurantza, aintzinasuna, Elkarkidetzeta...).

Akordio hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzietarako elegitea jarri daiteke Donostiako

Administrazioarekiko auzietarako epaitegietan.

Aurkeztu da hitzarmen-proposamena Irurako Ikastolarekin, diruz laguntzeko Irurako udalerrri honetako 2 urteko haurrak 2006/2007 ikasturtean eskolaratzeko.

Horren aurrean, gorporazioak erabaki du aho batez, ondorengoa:

Lehen.- Aipatutako hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Baimentzea Marimi Ugalde alkate andrea, udalaren izenean eta hau ordezkatzuz hitzarmena izenpetzeko.

Akordio hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzietarako elegitea jarri daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietarako epaitegietan.

### **HEMEZORTZIGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, BADAGOKIO EUDIMAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.**

Udalbatzak aho batez erabaki du gaia aztertu gabe uztea, behar den informazio guztia bildu arte.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 21:35ean eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN du.